

MONDRAGON CITY CHALLENGEREN BIGARREN EDIZIOA AMAITU DA

2023ko apirilaren 22an, ostirala, Arrasateko Amaia antzokian amaitu zen Mondragon City Challengeren bigarren edizioa, proiektu irabazleei sariak emanez; lehenengoan bezala, gure Elkartea erakundearen esku jarri zen, parte hartu zuten taldeentzat hainbat tutore jarrita.

Bigarren edizio honetan, 16-18 urte bitarteko kategorian, proiektu irabazlea Eimer izan zen, Gu Geu Sortzaile taldearena, Europarako bidaia baten sari batekin. Bere proiektuak alzheimerra duten pertsonentzako laguntza bilatzen du, 4 aplikazioen bidez, gaixoek dituen ondorio batzuei ahalik eta ondoen aurre egin ahal izateko, jolasen eta jardueren bitartez. Lehen aplikazioak bakardade soziala ekiditeko lan egiten du, bigarrenak entretenimendua bilatzen du, hirugarrenak pertsonaren eguneroko bizitza simulatzen du eta laugarrenak bizi ohitura osasungarriak sustatzeko lan egiten du.

19 eta 24 urte bitarteko kategorian, Olatu Berdea izan da talde irabazlea, AEBrako bidaia batekin. Talde horrek identifikatu du hiri garraiobideek isuritako poluzioa dela hiriek aurre egin behar dieten arazo nagusietako bat. Hori konpontzeko, partekatutako ibilgailu sistema bat proposatu dute, hiri bakoitzaren ezaugarrietara egokituta. Donostian egin zuten probak agerian utzi zuen patinete elektrikoa dela hirian ezartzeko ibilgailurik egokiena. Taldearen tutoreak Ana eta Pio Aguirre izan dira, gure Elkartea ordezkatzuz.

Proiektu originalenari emandako 800 euroko saria bi kamerundar gaztek osatutako Team Smart taldearentzat izan zen, eta ALEko Iñaki Aranburu izan dute tutore. Aplikazio horrek aukera emango die gidariei hirietako aparkaleku plaza jakin bat erreserbatzeko, enpresa espezializatu baten bidez. Aplikazioak nabigazio sistema integratu bat izango du, itzuleran autoa aparkatuta aurkitzeko, eta ibilgailu elektrikoaren bateria kargatzeko eskuragarri dauden karga puntuak jakinaraziko ditu.

Amaierako ekitaldia zortzi hilabeteko talde lanaren bukaera izan da; irailean hasi zen, 108 taldek aldez aurretik izena ematen zutenean, eta hainbat baheketa gainditu behar izan dituzte. Azaroan 18 bakarrik geratzen ziren, eta haiek izan ziren beren ideia propioa garatzeko ardura izan zutenak, ekintzailatza kooperatiboko proiektu bideragarri bat lortzeko. Proiektuak garatzeko, 18 taldeek ASEkoopeko eta gure Elkarteko kideen tutoretza izan dute. Martxoan epaimahaiak erabaki zuen sei talde pasatuko zirela finalera. Eta laugarren fasean, bigarren edizioaren amaiera baino aste bat lehenago, 18 taldeek parte hartu dute Ibilbide Kooperatiboek eskaintzen duten esperientzia aberasgarrian, kooperatiba baten funtzionamendua barrutik ezagutuz eta, gainera, elkarren artean interakzioan aritzeko aukera izanda.

Bigarren edizioaren antolaketak egiten duen balorazioa oso positiboa da, eta uste dute sormen handia egon dela, gazteek eta kooperatibismoak balio asko partekatzen dituztela egiaztatzen dela, eta Mondragon City Challengek pertsonak protagonista dituen gizarte bat eraikitzen laguntzen duela.